

ELUR-BISUTSA

ALEKXANDR S. PUSHKIN



© Marjinalia Bilduma
1999. urtea
Lege-Gordailua: SS-1038/99

Behorak arin doaz
Muinoetako elurretan zehar,
Zelatari izango bailitzan
Tenplu bat altxatzen da bakardadean.

.....

Halako batean, inguruan
Elur-maluten hegal-hotsa.
Belatz beltzak ustekabean
kolpatu du lera.
Haren negarrak zorigaitza dakar!
Tximist antzean behorrek
Iluntasuna begiztatzen dute
Zurdak laztuta.

YUKOFSKI

1811. urte bukaeran, guretzat hain gogoangarria den garai hartan, Nenaradova-n zuen lursailean Gavril Gavrilovich R*** izeneko gizon zintzoa bizi zen. Haren izaera abegitsua eta sinpatia zirela-eta, itzal ezin hobearen eskualde osoan; auzokoak sarritan etxera joaten zitzaizkion jatera, edatera, emaztearekin Boston-ean jokatzera (bost kopek-eko apostutan); eta haietariko batzuk, baita haren alabari begiratzera ere, Maria Gavrilovna-ri —hamazazpi urte besterik ez zituen neskato lirain eta zurbila—. Ezkongai egokitzat jotzen zuten, eta askok begiz jota zeukaten euren semeentzat edota eurentzat.

Maria Gavrilovna, frantses eleberriak irakurtzen hezita, maitemindurik zegoen. Haren bihotzeko aukeratua armadako alferiz gizagaixo bat zen, eta jaioterrian egun batzuk igarotzeko baimena zekarren. Ez dago esan beharrik neska antzeko grinaz maitatzen zuela, eta neska kuttunaren gurasoek, elkarrekiko sentitzen zuten grinaren berri izanik, alabari hartaz pentsatzea ere debekatu ziotela, eta kargutik baztertutako zerga-biltzaileari baino harrera txarra egin zioten.

Gure maiteminduek eskutitzak idazten zizkioten elkarri eta egunero elkar ikusten zuten pinudiko bakardadean edota kapera zaharraren aldamenean. Han betiereko maitasuna zin egiten zioten batak besteari, euren zorigaiztoko patuaz kezaka ari ziren eta mota guztietako planak egiten zituzten. Beraz, bai hitzez bai idatziz, honako ondoriora heldu ziren (txit erraz uler daitekeenez): bata bestea gabe arnasartzeko gai ez bagara, eta guraso krudelen borondateak gure zoriona eragozten badu, ez ote litzate posible izango haien baimena albo batera uztea? Esan beharrik ez dago zorioneko ideia hau jaun gazteari lehenik bururatu zitzaiola, eta primeran etorri zitzaiola Maria Grivilovna-ren irudimen erromantikoarekin bat egiteko.

Negua heldu zen eta elkar-ikusteei amaiera eman zien, baina orduan eskutizketaren maiztasuna areagotu egin zen. Vladimir Nikolaevich-ek

eskutitz guztietan eskatzen zion harengan uste ona izateko, isilka-misilka ezkontzeko eta bolada batez ezkutuan elkarrekin bizitzeko, horren ondoren neskaren gurasoen oinetara egotziko zen, eta jakina, maiteminduek erakutsitako tema heroikoaren eta sufrimenduaren aurrean gauza segurua zen esango ziotela: «Enetxook, zatozte gure besoetara!»

Maria Gavrilovna-k denbora luzea igaro zuen duda-mudatan: ihes egiteko proiektu andana atzera bota zuen. Azkenik, amore eman zuen: adostutako egunean afal orduan bere gelara joan behar zuen buruko minez zegoela argudiatuz. Dontzeilak konspirazioaren berri bazekien; biek lorategira atera behar zuten atzeko atetik, kanpoan zain izango zuten lera aurkitu, bertan eseri eta Nenaradova-tik bost legoara urrundu, Yadrino herriskaraino hain zuzen, eta handik zuzen-zuzenean elizara, Vladimir han egongo baitzen zain.

Egun erabakigarriaren bezperan, Maria Gavrilovna-k ez zuen gau osoan lorik egin: maletak egin, ostilamendua eta jantziak barruan sartu eta bi eskutitz idatzi zituen: bata, oso luzea, lagun zuen andereño sentikor batentzat; eta beste bat gurasoentzat. Agur esaten zien modurik zirrargarrianean; barkamena eskatzen zien bere jokabideagatik, grinak duen eutsi ezineko botereari errua leporatuz, eta amaitzeko, esaten zien, ezen, bere bizitzako momenturik zoriontsuena guraso

maitagarrien oinetara bere burua egoztea utziko zion unea izango zela. Bi eskutitzak ixteko, Tula-ko zigiluaz baliatu zen —bi bihotz sutan eta esaldi apropos bat— eta jarraian ohean erori zen egunsentia urratu baino lehentxeago, eta lotan geratu zen. Hala ere, amesgaizto izugarriek behin eta berriro iratzartzen zuten... Ametsetan, ezkontzera eraman behar zuen leran eseri orduko, haren aitak geldiarazi eta elurretatik abiadura handiz herrestan eraman eta gero, ziega sakon eta hondorik gabeko batera botazen zuela iruditzen zitzaion...; eta hankaz gora hegan egin eta bihotza modu ulertezinean gelditzen zitzaion bitartean, Vladimir ikusten zuen belarretan luze etzanda, zurbil eta odoleztatuta... Hil aurretik, arrenka eskatzen zion azkar ezkontzeko... Beste ikuspen batzuk —zein baino zein izugarriago eta kaotikoagoak— aurretik igaro zitzaizkion, bata bestearen ondoren. Azkenik, ohiz baino zurbilago jaiki zen, benetako buruko mina zuela. Gurasoak berehala ohartu ziren oso artega zegoela. Bien arreta samurrak eta etengabeko galderek: «zer duzu, Masha?» «Gaixo al zaude, Masha?» bihotza urratu zioten. Haiiek lasaitzen saiatu zen, pozik zegoen itxura ematen... alferrik baina. Gaua heldu zen. Etxekoen artean igaroko zuen azken eguna zela pentsatzeak bihotza estutzen zion. Bizirik baino hilik, inguruan zituen pertsona eta gauza guztiei adio esaten zien isilean.

Afal ordua zen; bihotza bortxaz taupaka hasi zitzaion. Ahotsa dar-dar, afaltzeko gogorik ez

zuela igarri eta gau on esan zien gurasoei. Hauek musu eman eta ohi bezala bedeinkatu zuten...; negarrez hasteko zorian egon zen. Logelan sartu zenean, aulki batean erori eta malkotan urtu zen. Dontzeilak hura lasaitu eta adoretzea lortu zuen. Dena prest zegoen. Ordu erdi baten barru, Masha-k aitaren etxea, logela, ordu arteko neskato-bizimodu lasaia utzi beharko zituen betiko. Kanpoan elur-bisuts handiaren orroa entzun zitekeen; kontraleihoak mugitu eta karranka egiten zuen; gauza guztietan ikusten zuen mehatxua edota seinale txarra. Laster, etxea isilik eta ametsetan geratu zen. Masha-k xalez soinak estali, kapa lodia jantzi, bitxiontzia hartu eta atzeko atetik atera zen. Dontzeilak jarraitu zion, bi fardel zeramatzala. Elkarrekin igaro ziren lorategian zehar. Elur-bisutsa artean baretu gabe zegoen; haize-bolada handiek aurpegia kolpatzen zieten, gazte bekataria geldiarazi nahian bezala. Lorategi-barrenera nekez iritsi ziren. Bidean, lera zain zeukaten. Zaldiak, hotzak jota, ezin zitezkeen geldi egon; Vladimiren zaldizaina haga aurretik paseatzen ziharduen, zamari urduriei eusteko. Andereñoari eta dontzeilari esertzen lagundu zien, baita fardelak eta bitxiontzia kokatzen ere; bridei heldu eta zaldiak arrapaladan abiatu ziren.

Utz dezagun gure neska heroikoa bere Patuaren eta Tereshka gurdizainaren trebeziaren esku eta itzul gaitezen gure mutil gazte maitemindurengana.

Vladimir-rek egun guztia igaro zuen batetik bestera. Goizean, Yadrino-ko apaiza ikustera joan zen, eta kostatu bazitzaion ere, harekin ados jartzea lortu zuen; gero, bertoko etxe-jabeen artean lekuko batzuen bila joan zen. Bisitatu zuen lehena Dravin izan zen, erretiroa hartutako berrogei urteko korneta, eta gogo onez onartu zuen eskaintza. Abentura honek, esan zuen, joandako garaietan husarrek egiten zituzten txandrioak ekartzen zizkion gogora. Vladimir gonbidatu zuen berarekin afaltzera, eta beste bi lekuko gehiago aurkitzeko arazorik ez legokeela ziurtatu zion. Ez zebilen oker. Handik gutxira, afal ostean, Schmit lur-neurtzailea eta polizia-kapitainaren semea agertu ziren, bata bere bibotearekin eta bere ezproiekin, bestea hamasei-bat urteko mutila, Ulano erregimendu batean sartu berria. Biek Vladimir-ren proposamena onartu ezezik, haren alde bizia sakrifikatzeko prest zeudela ere zin egin zioten. Vladimir-rek estu besarkatu eta etxera joan zen gauzak prestatzera.

Zerua aspalditik ilun zegoen. Tereshka zintzoa Neneradova-rantz bidali zuen troika-gidari, kasurako egokiak ziren jarraibide zehatzekin; berarentzat, zaldi bakarreko lera txikia prestatzeko agindu zuen, eta bakarrik, zaldizainik gabe alegia, Yadrino-ra jo zuen, bi ordu barru gutxi gora-behera han elkartuko baitzen Maria Gravrilovna-rekin. Ibilbidea ezagutzen zuen, hogeit hamar minutuko bidea guztira.

Zoritxarrez, Vladimir hiriaren kanpoaldetik landan zehar abiatu orduko, haizetea altxatu zen, laster elur-bisuts bilakatu zena; han ez zegoen ezer ikusterik. Minutu baten buruan bidea ezabatu zen; inguruko paisajea laino inguratzailer eta horiska batek janda desagertu zen, hegan zebiltzan elur-maluta zurien artean; zerua lurrarekin nahasten zen. Vladimir soro batean zegoen eta bidea berriz aurkitzen saiatu zen, alferrik baina; zaldia noraezean zebilen eta elur-piloren batekin estropezu egin edo zuloren batean erortzen zen behin eta berriro: lera etengabe iraultzen zen. Vladimir-ren kezka bakarra norabideari eustea zen. Dena den, ordu erdia pasata zegoela iruditzen zitzaion eta Yadrino-ko basoa ez zen agertzen. Beste hamar minutu-edo joan ziren; basoaren arrastorik ez ordea. Vladimir-rek landa zabala zeharkatu zuen, ordurako amildegi sakonez inguratuta. Bisutsa ez zen baretu, ezta zerua atertu ere. Zaldia nekatzen hasi zen, eta Vladimir izerdi patsetan zihoan, minutuero elurpean gerriraino sartzen bazen ere.

Azkenik, bide onetik ez zihoala ohartu zen. Gelditu egin zen; hasi zen pentsatzen, oroitzen, gogoeta egiten, eta eskuin aldera jo behar zuela sartu zitzaion buruan. Eskuin aldera jo zuen, beraz. Zaldiak ozta-ozta egiten zuen aurrera. Ordubetetik gorako bidea zeraman. Yadrino-k ez zuen oso urrun egon behar. Aurrera eta aurrera zihoan beti, baina landa zabalak amaigabea zirudien; elur- eta zulo-piloak eta besterik ez. Lera minutuero iraultzen

zen: minutuero zutitu behar zuen. Denbora aurrera zihoan; Vladimir benetan kezkatzen hasi zen.

Azkenik, albo batean, orban beltz bat agertu zen. Vladimir-rek hara jo zuen. Hurbildu ahala, baso bat ikusi zuen. Jainkoari eskerrak, pentsatu zuen, hurbil nago. Bertara hurbildu zen, hain ongi ezagutzen zuen bidea berehala topatuko zuelakoan; edo bestela, basotik itzulinguru joango zen. Yadrino-k baso horren atzean egon behar zuen. Laster, bide bat aurkitu eta neguak hostokatutako zuhaitz goibeletan barrena ibiltzen hasi zen. Han haizeak ezin zuen orro egin; bidea laua zen, zaldia bizkortu zen eta Vladimir-rek bere burua lasaitu zuen.

Aurrera eta aurrera zihoan, baina Yadrino ez zen agertzen; basoak bazirudien amaierarik ez zuela. Vladimir-rek izu handiz ikusi zuen oihanarte ezezagun eta itzel batean zegoela. Etsipenak gaina hartu zion. Zaldia zigortu eta zamari gaixoa trostan hasi zen; baina laster ahuldu eta ordu laurden baten ondoren lehengo ibilera geldoan jarraitu zuen, Vladimir gizarajoa gogor ahalegindu arren.

Piskanaka-piskanaka, zuhaitzak urriagotzen joan ziren eta Vladimir basotik atera zen. Yadrino-ren arrastorik ez zegoen. Gau erdia-edo izango zen. Masailetan zehar malkoak zerizkion; alderrai zebilen. Eguraldia bare zegoen, zerua atertzen hasi zen, eta tapiz zuri eta uhintsu batez estalitako lautada zabaldu zitzaion aurrean. Gaua nahiko

argitsua zen. Ez oso urrun, lau edo bost etxetxoz osatutako herriska ikustea lortu zuen. Vladimir-rek hara jo zuen. Lehendabiziko txabolara heldu orduko, leratik jauzi, leiho aldera korrika joan eta kristala jo zuen hainbat aldiz. Minutu gutxira, kontraleiho bat ireki zen eta agure baten bizar grisa agertu zen.

—Zer duzu?

—Urrun al dago Yadrino?

—Ea Yadrino urrun dagoen?

—Bai, bai. Urrun al dago?

—Ez dago oso urrun, ez; hamar legoara-
edo.

Hitz horiek entzunda, etsipenak jota Vladimir geldi-geldi geratu zen, heriotzara zigortu izan balute bezala.

—Eta zu, nongoa zara? —jarraitu zuen agureak.

Vladimir-rek ez zuen galderari erantzuteko adorerik izan.

—Adizu, agure —esan zion—, Yadrino-ra joateko zaldiren bat lortzeko modurik ba al duzu?

—Guk nola izango dugu zaldirik, ba? —
erantzun zion laborariak.

—Orduan, gidariren bat ezin izango al
zenuke lortu? Nahi duzuna ordainduko dizut.

—Zaude —esan zion aguretxoak,
kontraleihoak itxiz—. Eraman ezazu nire semea,
berak lagunduko dizu.

Vladimir zain geratu zen. Minutu bat ozta
igarota zegoela, berriz ere ate deika hasi zen.
Kontraleihoak ireki eta bizarra berriro agertu zen.

—Zer duzu?

—Zer gertatzen zaio zure semeari?

—Berehala dator, jazten ari da. Hotzak
zaude, ezta? Sar zaitetz barrura unetxo batez
berotzera.

—Eskertzen dizut, baina hobe duzu zure
semeari presa sartzea.

Ateak karraska egin zuen eta eskuan
artzain-makila zeraman mutila atera zen; aurrean
jarri zen, batzuetan bidea adierazten, eta beste
batzuetan bidea bilatzen, elurpean ezabatuta
baitzegoen.

—Zer ordu da? —galdegin zion Vladimir-
rek.

—Bada, laster egunsentia urratuko da —
erantzun zion laborari gazteak. Vladimir-rek hitzik
ere ez zuen esan.

Yadrino-ra heldu zirenean, oilarrek
kukurruku jotzen zuten eta egunargia zen. Eliza
giltzez itxita zegoen. Vladimir-rek gidariari
ordaindu eta apaizaren etxera abiatu zen. Troika ez
zegoen patioan. Zer berri ote zituen zain?

Baina itzul gaitezen Nenaradova-ko jabe
onberengana, ea zer gertatu zaien.

Egia esan, ezer ez.

Nagusiak esnatu eta egongelara sartu ziren;
Gavril Gavrilovich bere lo-txanoarekin eta
franelazko kamisoiarekin; Praskovia Petrovna,
kotoizko txabusina soinean. Samovarra ekarri eta
Gavril Gavrilovich-ek neskamea bidali zuen Maria
Gavrilovna zer moduz sentitzen zen eta ondo lo
egin al zuen jakitera. Neskamea itzuli zen,
andereñoaren partez esanez, gaizki lo egin zuela,
baina hobeto sentitzen zela eta berehala egongelara
jaitsiko zela. Laster, egongelako atea ireki eta
Maria Gavrilovna sartu zen, aitari eta amari egun
on esateko.

—Zer moduz zure buruko mina, Masha? —
galdetu zion Gavril Gavrilovich-ek.

—Hobeto, aitatxo —erantzun zion Masha-k.

—Beharbada, bart gauean gehitxo berotu
zinen, Masha —esan zuen Praskovia Petrovna.

—Baliteke, amatxo —erantzun zuen
Masha-k.

Eguna berririk gabe igaro zen; gauean,
ordea, Masha gaixorik zegoen. Hirira mandatua
bidali zuten, sendagile-eske. Biharamoneko arrats
partean heldu zen eta gaixoa eldarniopean aurkitu
zuen. Sukar handia izan zuen eta neska gaisoa
hiltzeko zorian egon zen pare bat astez.

Etxean inork ez zuen proiektaturiko
ihesaldiaren berririk izan. Aurreko egunean
idatzitako eskutitzak erretan zeuden; dontzeilak ez
zion inori ezer esan, nagusien koleraren beldur.
Apaizak, korneta erretirodunak, lur-neurtzaile
bibotedunak eta ulano gazteak zuhur jokatu zuten
euren hobe beharrez; Tereshka-k —gurdi-
gidariak— hitzik ez zuen esan ezta mozkortuta ere.
Beraz, dozena-erdi konspiratzailek baino gehiagok
sekretua gorde zuten. Maria Gavrilovna bera izan
zen dena agerian jarri zuena, eldarniopean pasatako
denboran. Hala ere, hain zentzugabe hitz egin zuen,
ezen, haren amak —oheburuan beti egoten zenak—
ondorioz bakarrik atera ahal izan baitzuen alaba

Vladimir-rez zeharo maiteminduta zegoela, eta maitasun hori ziurraski izan zela haren gaixotasunaren arrazoia. Kontua senarrarekin eta hainbat auzokorekin kontsultatu ondoren, denek aho batez erabaki zuten Maria Gavrilovna-ren Patua maitasun hari lotuta zegoela eta Patuaren aurka ezer egiterik ez zegoela; txirotasuna eta doilortasuna berdin ez dela; diruak zoriona ez dakarrela, eta beste gauza antzeko batzuk. Pellokeriak txit baliagarriak dira horrelako kasuetan, guk geuk nekez aurki dezakegunean aitzakia on bat gure ekintzak zuritzeko. Bien bitartean, andereñoa zuzperten zihoan. Gavril Gavrilovich-en etxetik Vladimir azken aldiz ikusi zutenetik, denbora luzea pasata zegoen. Bertan beti egiten zioten abegi txarrak uxatu zuen. Haren bila joateko eta ustekabeko zorionaren berri ematea pentsatu zuten: ezkontzeko baimenaren berri, alegia. Ordea, zein izango ote zen Nenaradova-ko jabeen harridura, gonbitearen erantzun moduan, hartaz eskutitz erdi-ero bat jaso zutenean? Hark berak zioenez, ez zen inoiz etxe hartara joatera berriro ausartuko eta arren eskatzen zien bera barkatzeko, gizarajo hutsa zelako eta heriotzaz beste itxaropenik ez zuelako. Egun gutxira, Vladimir berriro armadan sartu zela jakin zuten. 1812. urtean gertatu zen hori.

Bolada luze batez ez ziren eriondo jarraitzen zuen Masha-ri horren berri ematera ausartu. Hark inoiz ez zuen Vladimir aipatzen. Hilabete batzuk geroago, Borodino-ko batailan larri zauritutakoan

eta kondekoratutakoen artean haren izena ikusi zuenean, konortea galdu eta sukarrak berriz hartuko zuela beldur izan ziren. Zorionez, Jainkoari eskerrak zorabioak ez zuen ondorio txarrik izan.

Beste pena bat gehitu zitzaion. Gavril Gavrilovich-en egunak amaitu ziren, ondasun guztiak oinordetzan hari utzita. Oinordetzak, ordea, ez zuen kontsolatu: Praskovia Petrovna gaixoaren atsekabea zinez erdibanatzen zuen; zin egin zuen ez zuela inoiz abandonatuko, eta biek hain oroitzapen-tristeak gogora zekarzkieten Nenaradova-tik alde egin eta ***ko zuten jabegora bizitzera joan ziren. Han ere ezkongai ugari ibiltzen ziren neskato lirain eta aberatsaren inguruan, baina itxaropenik txikiena ere ez zion ematen inori. Batzuetan, amak senarra aukeratzeko adorea ematen zion; Maria Gavrilovna-k burua mugitu eta pentsakor geratzen zen. Vladimir jada ez zen existitzen: Moskun hil zen frantziarrak sartu aurreko egunean. Haren oroitzapena bazirudien Masha-rentzat sakratua zela; behintzat, hura gogora ekar ziezaiokeen guztia gordetzen zuen: hark noizbait irakurritako liburuak, hark egindako marrazkiak, berarentzat idatziz jarritako musika eta bertsoak. Auzokoek guzti horren berri zekitenean, neskak erakutsitako irmotasunaz harritzen ziren, eta Artemisa honen zorion tristea garaitzea patutzat izango zuen heroia noiz azalduko zain zeuden irrikaz.

Bien bitartean, amaiera loriatsua eman zioten gerrari. Gure erregimenduak atzeritik

bueltan zetozen. Herria korrika ateratzen zitzairen bidera. Musikak etsaiarengandik ikasitako abestiak jotzen zituen: «Vive Henri IV!», Tiroleko baltseak eta «La Joconde»ren ariak. Gerrara ia haurrak zirela abiatutako ofizialak gerra-giroak gizonbata eta gurutzez kondekoraturik itzultzen ziren. Soldaduak elkarren artean alai mintzatzen ziren, euren hizketaldietan alemanierazko edo frantsesezko hitzak erabiliz. Haiak bai garai ahaztezinak! Loria eta berotasun handiko garaiak! Zeinen gogor taupatzen zuen errusiar bihotzak «Aberri» hitzaren aurrean! Zeinen gozoak ziren itzuleraren malkoak! Denok ados jarrita bezala, nola bateratzen genituen harrotasun nazionalaren sentimenduak tsarrarekiko maitasunezko sentimenduekin, eta harentzat, zeinen momentu handia izan zen!

Emakumeak, errusiar emakumeak, alderaezinak izan ziren orduan. Euren ohizko hoztasuna desagertu egin zen. Euren berotasuna zur eta lur gelditzeko modukoa zen, konkistatzaileekin topo egiterakoan oihu egiten zietenean: «Gora!!».

Eta kapeluak jaurkitzen zituzten airera.

Orduko zein ofizialek ez zukeen aitortuko bere saririk preziatuena emakume errusiar bati zor ziola?

Egun liluragarri haietan Maria Gavrilovna amarekin bizi zen *** eskualdean eta ez zuen ikusi

bi hiriburuetan soldaduen itzulera nola ospatu zuten. Konterrietan eta herrietan, ordea, jendearen hunkipena, oro har, are handiagoa izan zen ziurraski. Leku horietariko batera ofizial bat iristea benetako garaipentzat jo zitekeen, eta lebitaz jantzitako maitaleak trauskila zirudien haren aldean.

Jada esan dugunez, zerakutsan hoztasuna gora-behera, Maria Gavrilovna beti ezkongai izuraturik agertzen zen, lehen bezala. Baina denek bazterrean geratu behar izan zuten, haien aurrean husar-koronel bat —Burmin— zaurituta agertu zenean, botoi-zuloan San Jorgeko gurutzea eta aurpegian «zurbiltasun interesgarria» zituena, tokiko andereñoek esaten zuten bezala. Hogeita sei bat urte izango zituen. Bere etxaldean zegoen egun batzuetako baimenarekin, Maria Gavrilovna-ren herritik hurbil. Maria Gavrilovna-k lehentasun handia erakutsi zion. Haren aurrean, ohiz inguratzen zitzaion melankolia piztu egiten zitzaion. Ezin liteke esan harekin lakrikunkeriatan zebilenik, baina olerkariak, neskak nola jokatzeko zuten erreparatuta, hala adieraziko zukeen:

Se amor non ê, che dunque?¹

Burmin, izan ere, oso mutil begikoa zen. Hain zuzen, emakumeei gustatzen zaien temperamentukoa zen: zintzoa, adeitsua, bat ere harrokeriarik gabea eta argi eta garbi ironikoa.

¹ Maitasuna ez bada, zer besterik?

Maria Gavrilovna-rekin erakusten zuen jokabidea xaloa eta naturala zen; aldiz, neskak zegien edo zioen guztiari arimaz eta begiez jarraitzen zion. Bazirudien lasaia eta zuhurra zela, baina alproja porrokatua izan zelako zurrumurrua zebilen, horrek Maria Gavrilovna-ren aurrean kalterik bat ere ekarri ez bazion ere, zeren (oro har, neska guztien moduan) gogo onez barkatzen baitzituen izaeraren ausartasuna eta bizitasuna agerian jartzen zituzten gaztetako erokeriak.

Baina, batez ere (haren samurtasuna baino, haren hizketa atsegina baino, haren zurbiltasun interesgarria baino, haren beso bendatua baino), husar gaztearen zuhurtzia zen Maria Gavrilovna-ren jakinmina eta fantasia kitzikatzen zituena. Mutila zenbat gustatzen zitzaion beste ezertaz ezin zen konturatu; zituen adimenari eta esperientziari esker, gainerakoetatik bera nahiago zuela oharturik egotea ez litzateke, hortaz, inondik ere bitxia izango... Zelan, ba, ez zeuzkan ordura arte entzunik oraindik haren maitasun-adierazpenak? Zer eragozpen zuen? Benetako maitasunetik bereiztezina den lotsa? Harrotasuna? Edo gorteatzaile trebearen plantak egitea? Hori guztiori misterio hutsa zen neskarentzat.

Hartaz guztiaz kontu handiz pentsatu eta gero, arrazoi bakarra lotsa zela erabaki zuen; eta mutilari bihotz emateko, harekiko adeitasunak areagotzea hartu zuen helburu, zenbaitetan samurtasuna eta guzti ere agertzeaz batera. Gauzak

bideratu nahi zituen bukaerarik asmaezinenerantz, eta maitasuna noiz agertuko zion itxaroten zuen ezinegenez. Misterioak —izanak izan— emakumezkoaren bihotza asaldatzen du beti. Zerabilen taktikak nahi zuen arrakasta lortu zuen; behintzat, Burmin melankolian erori zen, eta bere begi ilunak Maria Gavrilovna-engan finkatzen zituen halako grinaz, ezen, une erabakigarria bai baitzirudien hurbil zegoela. Auzokoek ezkontzari buruz hitz egiten zuten jada hitzartuta balego bezala eta Praskovia Petrovna pozik zegoen, alabak merezi zuen senargaia azkenik aurkitu zuelako.

Egun batean, andrea «bakar-jokoan» kartekin ari zela, Burmin gelan sartu eta berehala Maria Gavrilovna-z galdetu zion.

—Lorategian dago —erantzun zion andreak—. Zoaz harekin, nik hemen itxarongo zaituztet—. Burmin-ek alde egin zuenean, andreak aitaren egin eta pentsatu zuen bere artean: «agian, gaur bertan konponduko da dena».

Burmin-ek Maria Gavrilovna aurkitu zuen urmaelaren ondoan, sahas baten azpian, eskuetan liburu bat eta soineko zuria soinean —eleberriko benetako heroia bailitzan—. Ohizko diosalen ondoren, Maria Gavrilovna-k elkarrizketa hiltzen utzi zuen nahita, biek zuten aztoramena areagotuz; beraz, nahasmendu hartatik ateratzeko, bat-bateko eta erabateko maitasun-aitorpena egitea beste biderik ez zuten izan. Eta hala izan zen: Burmin

egoera hartan zeharo larrituta, bere bihotza haren aurrean zabaltzeko aukera aspalditik itxaroten zuela igarri zion, eta arren eskatu zion minutu batez adi entzuteko. Maria Gavrilovna-k liburua itxi eta betazalak behetu zituen baiezko antzo.

—Maite zaitut —esan zuen Burmin-ek—. Grina handiz maite zaitut —Maria Gavrilovna lotsatu zen eta burua areago makurtu zuen—. Ezin gozoagoa iruditzen zaidan ohituran, zu egunero ikusi eta aditzeko ohituran, nire burua abandonatzean, gaizki jokatu dut —Maria Gavrilovna Saint Preux-en lehendabiziko gutunaz oroitu zen²—. Berandu da nire Patuari aurka egiteko: hemendik aurrera, zure oroitzapena, zure irudi alderaezin eta liluragarria nire bizitzako oinazea eta gozamena izango da; baina oraindik ere, amaitzeko, betekizun latza geratzen zait... Gure artean hesi igaroezina altxatuko duen sekretu izugarri bat kontatu behar dizut.

—Hesi hori betidanik izan da gure artean —erantzun zion bizkor Maria Gavrilovna-k—. Ni ezin ninteke sekula zure emaztea izan...

—Badakit —erantzun zion Burmin-ek—. Badakit garai batean beste bat maite izan zenuela..., baina heriotza, eta hiru urteko dolua... Maria Gavrilovna maite eta zoragarria, ez zaitez saia geratzen zaidan azken kontsolamendua

² St. Preux: *Julie, ou la Nouvelle Héloïse*; Jacques Rousseau-ren eleberriko heroia

suntsitzen: nire zoriona egia bihurtzeko baimena emango zenukeen pentsamendua; zoritxarrez... Isil zaitez, Jainkoaren izenean, isil zaitez. Lur jota nago... Bai..., badakit, nirea izango zinela igartzen dut, baina... munduko izakirik zorigaiztokoena naiz, ezkontuta nago!

Maria Gavrilovna-k harrituta begiratu zion.

—Ezkontuta nago! —jarraitu zuen Burmin-ek—. Badaramatzat lau urte ezkontuta, eta ez dakit nor den nire emaztea, non dagoen, noizbait aurkituko ote dudan.

—Zer diozu? —hots gin zuen Maria Gavrilovna-k—. Zeinen harrigarria den hau guztiau! Jarrai ezazu, gero kontatuko dizut nik... Baina, jarrai ezazu, arren eskatzen dizut!

—1812. urtearen hasieran —esan zuen Burmin-ek—, Vilna-rantz abiatu nintzen lehia handiz, gure erregimentuarekin han elkartzeko. Gau batean, postara heldu ginen oso berandu, eta zaldiak ahalik eta azkarren lotzeko agintzera nindoala, ustekabea, elur-bisuts izugarria altxatu zen, eta arduradunak eta zaldi-mutilek atertu arte itxarotea aholkatu zidaten. Aintzat hartu nuen aholkua; hala ere, urduritasun txundigarria jabetu zen nitaz: bazirudien norbaitek bultza egin zidala... Bien bitartean, elur-bisutsak atertu gabe jarraitzen zuen; lasaitasuna galdu, zaldiak berriro lotzeko agindu eta bideari ekin nion elur-bisutsaren erdian.

Gurdi-gidaria ibaitik joan behar genuela tematu zen, bidea hiru legoa laburragoa zelako. Ibai-ertzak ezabatuta zeuden; zaldizainak ez zuen bidearekin lotu behar gintuen lekua aurkitu, eta beraz, ezagutzen ez genuen leku batean geunden. Elurbisutsa ez zen baretzen; argitxo bat urrunean ikusi eta hara joateko agindu nion. Herriska batera heldu ginen; zurezko elizan argi bat zegoen. Eliza zabalik zegoen eta burdinesiaren atzean lera batzuk gelditu zeuden; eliz atari inguruan jendea zebilen.

—Hemendik, hemendik —oihu egin zidaten ahots batzuek—. Zaldizanari hurbiltzeko agindu nion.

—Jainkoarren, baina, non ibili haiz? —esan zidan norbaitek. Emaztegaiak konortea galdu dik, apaizak ez zekik zer egin...; alde egiteko zorian geundean. Sar hadi azkar. Nik, ezer esan gabe, leratik jauzi nuen eta hiruzpalau kandelak erdizka argizatutako elizan sartu nintzen. Bazter bateko ilunpean, neska bat eserleku batean eserita zegoen; beste neska batek lokiak igurtzen zizkion. Jainkoari eskerrak —esan zuen honek—. Oso berandu heldu zara. Andereñoa hiltzeko zorian egon zara. Apaiz zaharra nigana hurbildu eta galde egin zidan:

—Hasteko prest al zaude?

—Aurrera, aita, aurrera —erantzun nion nik adigalkor.

Neska jaso zuten. Ez zitzaidan itsusia zela iruditu... Arinkeria ulergaitza, barkaezina...; zutik jarri nintzen haren ondoan, aldarearen aurrean; apaiza presaka zebilen; hiru gizonak eta dontzeila batek emaztegaiari eusten zioten eta berataz baino ez ziren arduratzen. Ezkondu egin gintuzten.

—Emaiozue musu elkarri. Nire emazteak bere aurpegi zurbila ituzli zuen nigana; ni musu ematera nindoakion..., berak orduan oihiu egin zuen: Ai, ez da bera, ez da bera!, eta konorterik gabe erori zen. Lekukoek beldurrez begiratu zidaten. Nik buelta eman, elizatik ahalik eta azkarren atera, lera barrura jauzi eta deiadar egin nuen: Goazen hemendik!

—Jainkoarren! —hots egin zuen Maria Gavrilovna-k—. Eta ez al dakizu zure emazte gaixoaz zer izan zen?

—Ideiarik ez —erantzun zuen Burmin-ek—. . Ez dakit ezkondu nintzeneko herriskaren izena zein zen, ez dut gogoratzen nongo postatik nentorren. Garai hartan, hain axola gutxi eman nion nire bihurrikeria gaitzesgarriari, ze, elizatik alde egin eta gero, lotan geratu nintzen, eta biharamonean esnatu nintzenean, hirugarren postan nengoen. Laguntzen zidan morroia kanpainan hil zen; beraz, nigandik hain txantxa ankerra jasan zuen emakumea, eta nitaz hain modu izugarritz mendekatzen ari dena, aurkitzeko itxaropenik txikiena ere ez daukat.

—Jainkoarren, Jainkoarren! —esan zuen Maria Gavrilovna-k, mutilari eskutik helduz—. Orduan, zeu izan zinen!, ez al nauzu ezagutzen, ba?

Burmin zurbildu eta haren oinetara egotzi zen.

AMAIERA